



A. 2021EKO EKAINAREN 11KO EBAZPENA

Gasteiz

Gardentasunaren Foru Kontseilu honek aztertu du informazio publikoa eskuratzeko 2021eko apirilaren 6an aurkeztutako eskaera ezetsi izanaren aurkako erreklamazioa, [REDACTED] (NANA: [REDACTED]) jarria, Bidegurutzea elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz (jakinarazpenetarako helbidea: [REDACTED]).

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Espedientean dagoen dokumentazioaren arabera, 2005 eta 2018 artean, erreklamatzailerak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari (aurrerantzean GOFE) hainbat informazio eskatu zion adimen desgaitasuna duten pertsonentzako hiru pisuren funtzionamendurako harekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari buruz.

Bigarrena.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak erantzunik eman ez zuenez, [REDACTED] idazki bat aurkeztu zuen 2021eko apirilaren 6an Arabako Foru Aldundiaren Erregistroan, Bidegurutzea elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz. Idazki hori Gardentasunaren Foru Kontseiluari zuzenduta zegoen, eta haren helburua zen aipatutako lankidetzaren hitzarmenari buruz bere garaian GOFEn aurkeztu ziren eskaeren, erreklamazioen eta proposamenen erantzuna jasotzea. Idazki hori eta harekin batera igorritako 25 dokumentuen kopia bat igorri zitzaion Gardentasunaren Foru Kontseiluaren lehendakariari 2021eko apirilaren 7an.

OINARRI JURIDIKOAK

1. Erreklamazioa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari aurkeztu zaionez, Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 20ko 1/2017 Foru Arauaren aplikazio eremu subjektiboan sartzen da.

Bestalde, bat etorritik 1/2017 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, zeinari aurkeztu baitzaio erreklamazioa, badu foru erakunde horren gaineko eskumena.

2. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 29ko 19/2014 Legeak (aurreratzean GIPEGOL) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen du 12. artikuluan, eta 13. artikuluan honela definitzen du informazio publikoa: «titulu honen aplikazio eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo



dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere».

3. Aurkeztutako gaiari sakonki heldu aurretik, aztertu behar da ea GIPEGOLen lehenengo xedapen gehigarriaren 1. apartatua aplikatzekoa den; izan ere, baldintza hori betetzen dela joz gero, erreklamazioa ez da onartuko eta ez da haren edukia sakonki aztertuko.

1. apartatu horrek honako hau xedatzen du: «Abian den administrazio prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio prozedura arautuko duen araudia».

Alegia, ez da bidezkoa GIPEGOLen aurreikusitako araudia aplikatzea, baldin eta kasuari aplika dakioken administrazio prozedura berariazko bat badago, erreklamatzailerak interesduna bada eta prozedura abian badago.

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4.1.a) artikulua interesduntzat hartzen ditu «Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak».

Aztertzen ari garen kasuan, aurrekarietan jaso denez, erreklamatzailerak aitortu egin du alderdi interesduna dela; izan ere, bere erreklamazioan beren-beregi adierazi du alderdi interesdun gisa egin dituela GOFerekin izandako lankidetzarekin zerikusia duten eskabide, eskaera eta erreklamazio guztiak.

Hala, jarduketa horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikuluan jasotako administrazio prozedurako interesdunaren eskubideen babesean egin ziren.

Prozeduraren izapidetze egoerari dagokionez, interesdunak informazioa eskatu zuen unean prozedura abian zegoen; izan ere, elkarre interesdunak berariaz adierazi du GOFerekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren indarraldian aurkeztu zituela informazio eskaerak, hau da, 2005 eta 2018 artean.

Beraz, ezin da aplikatu Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 20ko 1/2017 Foru Arauak eta GIPEGOLEk informazio publikoa eskuratzeari buruz jasotzen duten araudia, eta, ondorioz, ezin da onartu kontseilu honi aurkeztutako erreklamazioa.



Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, ebazpen hau eman du:

EBAZPENA

Lehenengoa. Azaldutako aurrekariak eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, bidezkoa da ez onartzea aurkeztutako erreklamazioa izapidetzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren 1. apartatuan jasotako arrazoia dela eta.

Bigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Lexuri Ugarte Aretxaga
Mahaiburua

Inés Vadillo Alzola
Kontseilukidea

Daniel Martínez Monge
Kontseilukide-idazkaria